



“Nire ibilbide profesionalaren lehen urratsak emateko, Lantegi Batuak-en praktikak egitea aukeratzen dut”

XIV. Beka Deialdia Desgaitasuna duten Pertsonentzat: **PRAKTIKAK LANTEGI BATUAK-en**



Nahitaezkoa:

- > %33ko edo gehiagoko desgaitasun-ziurtagiria.
- > 2023-2024 ikasturteko tituladuna izatea, Deustuko Unibertsitateko hurrengo fakultateetan: Zuzenbidea, Ingenieritza, DBS, Osasun Zientziak, Hezkuntza eta Kirola, Gizarte eta Giza Zientziak.
- > Deustuko Unibertsitateko Graduondoko ikaslea izatea, edo 2023-2024 ikasturteko tituladuna izatea.

LANTEGI BATUAK irabazi asmorik gabeko fundazio bat da, eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat lan-aukerak sortzea du helburu.

Horregatik, Deustuko Unibertsitatearekin batera beka deialdi bat argitaratu da desgaitasunen bat duten ikasleen edota tituladunen enplegarritasun aukerak gehitzeko, LANTEGI BATUAK-en lantegiren batean 6 hilabeteko praktikak eginez.

Nola?

Beka eskatu ahal izateko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- LANTEGI BATUAK-en eskabide imprimakia. (Deustuko Unibertsitatearen Gizarte Ekintzako Zerbitzuaren bulegoan lor daiteke Bilboko Campusan, edo jaitsidaiteke Lantegi Batuak-en webgunetik ere: <https://www.lantegibatuak.eus/wp-content/uploads/2022/04/20426ImpresoSolicitud-WEB-2.pdf>).
- NAN (fotokopia) eta argazki bat (karnet tamainakoa).
- Desgaitasuna akreditatzeko ziurtagiriaren, Gizarte Segurantzako afiliatu txartelaren eta ikasketa-ziurtagiriaren fotokopiak.
- Curriculum Vitae.

Noiz?

- 2024ko azaroaren 1etik abenduaren 15era bitartean: eskabideen aurkezpena.
- 2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 15era bitartean: aurrez hautaturiko hautagaiei elkarriketak.
- 2025eko otsailaren 3tik uztailaren 31ra bitartean: praktikak egitea.

Zenbat?

Ikasle bakoitzarentzat praktikak egiteko esleitutako diru kopurua hilean 800€koa izango da.

(Praktika ez baldin bada lanaldi osokoa, dagokion parte proportzionala emango da).



Eskabideak 2024ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Enplegarritasunean Laguntzeko BBK Zerbitzuan, Goietxa Bidea, 18 – 48150 Ola-Sondika, Alicia Garciari zuzenduta, edo posta elektronikoaren bidez: aliciagarcia@lantegibatuak.eus.

Informazio gehiago eskatzeko:
Gizarte Ekintzako eta Inklusioko Zerbitzua

☎ 944 139 000 (ext. 2982)
accionsocial@deusto.es